



ISTRIPUETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

2026ko Eskola Izotz I. Kanpaina

1. Marko orokorra

Uharteko Izotz Jauregiko Larrialdi eta Autobabes Planak Eskola Izotz I. Kanpaina arautzen du.

Parte hartzen duten ikasle guztiek **beren ikastetxeko eskola-asegurua edo aseguru propioa** izango dute, eta irakasle laguntzaileak izango dira ikasleen zuzeneko arduradunak jardunaldi osoan.

2. Pistan berehala jardutea

1. Izotz-pistan erortzen bada, kolpatzen bada edo gorabeheraren bat gertatzen bada, **langile teknikoek berehala geldituko dute taldearen jardura**, eta eremua segurtatuko dute.
2. Langile teknikoek istripua izan duen ikaslearen egoerari buruzko lehen balorazioa egingo dute, mugitu gabe, segurtasun-arrazoiengatik behar-beharrezkoa denean izan ezik.
3. Ikaslearekin joango den taldeko irakasle arduradunari berehala jakinaraziko zaio.

3. Osasun laguntza instalazioan

4. Hasierako balorazioak aukera ematen badu, ikaslea **Izotz Jauregiko erizaintza-gelara** eramango da, eskura dituen baliabideak erabiliz.
5. Langile teknikoek istripuaren berri eman behar diote kanpainaren koordinatzaileari.
6. Baimendutako langileek **oinarrizko lehen laguntzak** aplikatuko dituzte, instalazioko Larrialdietarako eta Autobabeserako Planaren arabera.
7. Kanpainaren koordinatzaileak, irakasle-taldearekin batera, gertaeraren larritasunaren ebaluazioa egingo du, ondorengo urratsa zehazteko.

4. Osasun-zentrora eramateko erabakia

8. Osasun-zentro edo ospitale batera joatea beharrezkotzat jotzen denean:
 - Kanpainaren koordinatzailea larrialdi-zerbitzuekin jarriko da harremanetan, egoerak hala eskatzen badu, irakasle-taldearekin koordinatuta, ikastetxeko eskola-aseguruari buruzko informazioa baitakite.



- Premiazkoak ez diren kasuetan, taxiz egingen da lekualdaketa, osasun arloko langileen jarraibideen arabera. **Ikastetxeko irakasleek hartuko dute beren gain, hasiera batean, lekualdatzearen kostu ekonomikoa.**

9. **Ikastetxeko irakasleen ardura** izanen da lekualdatzea baimentzea eta **ikaslea une oro** osasun etxeraino **laguntzea**.

5. Eskola-asegurua eta osasun-zentroa

10. Parte hartzen duten ikasle guztiek **eskola-asegurua edo ikastetxeko asegurua** izango dute, eta bera izango da ikastetxearen kudeaketaren arduraduna.
 11. Anbulantzia edo osasun-baliabideak erabiliz lekualdatuz gero, **ikastetxeak osasun-zentroa zein den adierazi beharko du**, eskola-aseguruaren baldintzen arabera, betiere ikaslearen egoera klinikoak horretarako aukera ematen badu.
-

6. Jakinarazpena

12. Irakasleek ahalik eta lasterren jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari gertatutakoa.
 13. **Ikastetxeari dagokio** istripua izan duen ikaslearen familiari edo legezko tutoreei horren berri ematea, baita lekualdatzearen eta egoeraren berri ematea ere.
-

7. Gorabeheraren erregistroa

14. Gertakaria Izotz Jauregiko eta Nafarroako Neguko Kirolen Federazioko barne prozeduren arabera erregistratuko da.
-

8. Azken kontsiderazioak

- Antolakuntzak uneoro irakasleekin eta larrialdi zerbitzuekin elkarlanean jardungo du.
- Irakasleak dira **ikasleen erantzuleak**, bai pistan, bai pistatik kanpo.
- Protokolo hau **nahitaez bete behar dute** kanpainen parte hartzen duten ikastetxe guztiek.